

Deba
ETORKIZUNA ORAIN



deba
berri

2021eko ABENDUA 17. zbk.

DEBA
BERRIA
MARRAZTEN



Debaberri 16
2021eko urria

AURKIBIDEA

2 Udaletxetik
 3 ...2022rako aurrekontu proiektua
 4-5Dagigun
 6Emakumeen Kontrako
Indarkeria Desagerrarazteko
 Nazioarteko Eguna
 7Tene Mujika
 8-9Gobernu Planaren
 2021eko balantzea
 10Erosketa bonuak
 11ExerCita
 12Deba 100 hitzetan
 13Euskararen Eguna
 14-15Javier Leon Gonzalez,
 Deba-Mutriku zubiaren obra
 zuzendaria
 16Emakume migranteen sarea
 17-18-19Laburrak
 19Agenda
 20Kolaborazioa.
 Euskal Kostaldeko Geoparkea
 21Kolaborazioa.
 Itziarko Auzo Udala
 22-23 Kolaborazioa. Alderdiak
 23Gobernuarekin
 harremana egiteko bideak
 24Elkarrizketa.
 Mirari Uranga Beristain, Apakin
 Guraso Taldeko kidea



Deba Udala

© Argitaratzailea: Debako udala.

Egilea: SharinF5 Kooperatiba

Lege Gordailua: L.G.
SSPRAXIAS/FUNCIONES
EJECUTIVAS918-2012



GILEN GARCÍA BOYRA - DEBAKO ALKATEA

AGINDUTAKOA ERA BERRITZAILEAN BETEZ

Urte amaierara helduta balantzea egiteko unea ere heldu zaigu. Osasun pandemiak ere busti du 2021. urte osoa azkenean, eta horri erantzun behar izan diogu Udaletik ere. Hala ere, Deba etorkizunera eramateko aurreikusitako proiektuak ez ditugu ahaztu, eta portzentaje handian bete ditugu aurreikusitakoak. Esaterako Alde Zaharreko trafikoa erregulatu dugu, aparkalekuak berrantolatu ditugu, kultura eskaintza zabala osatu dugu eragileekin elkarlanean, mantentze lanak egin ditugu baserri bideetan, Gaztelekuan...

Garrantzitsuak dira egin ditugunak, dudarik gabe, baina nolakotasuna ere aipatu nahi nuke bereizgarri gisa, lan egiteko modua, alegia. Esan genuen herritarrak erdigunean jarrita, haiekin, eragile sozialekin, politikoeekin, auzo udalarekin... elkarlanean jardungo genuela. Eta hala egin dugu.

Dagigun partaidetzarako gunearen bitartez ari gara kooperazioan oinarritutako prozesuetan sakontzen, Deba elkarrekin diseinatzeaz gain, lan egiteko eredu berria ere finkatu dugu. Esan eta egin.

CUMPLIENDO LO PROMETIDO DE FORMA INNOVADORA

Nos acercamos al final de año y, a su vez, llega el momento de hacer balance. Finalmente, este año 2021 también se ha visto salpicado por la pandemia sanitaria, que ha requerido una respuesta por parte del Ayuntamiento. Sin embargo, no hemos olvidado los proyectos previstos para el progreso de Deba y hemos cumplido un gran porcentaje de las previsiones. Por ejemplo, hemos regulado el tráfico en la Parte Vieja, reorganizado aparcamientos, hemos ofrecido una importante propuesta cultural en colaboración con las entidades sociales, realizado trabajos de mantenimiento en caminos rurales, en el Gazteleku,...

Sin duda son importantes todos los trabajos que hemos realizado, pero también me gustaría hacer hincapié en la forma de trabajar como seña de identidad. Dijimos que íbamos a poner a las personas en el centro y que colaboraríamos con la ciudadanía, con los agentes sociales, políticos, con Itziarko Auzo Udala,... Y así lo hemos hecho.

A través del espacio de participación Dagigun estamos profundizando en los procesos basados en la cooperación, y además de realizar el diseño de Deba en colaboración, hemos consolidado un nuevo modelo de trabajo. Dicho y hecho.

Gizarte Zerbitzuetan pandemian sortu diren zerbitzu berriak mantentzea da Udal Gobernuaren 2022ko aurrekontuetarako proposamenaren ardatz nagusietako bat

2019an osatutako Gobernu Planeko ardatzak (udal antolaketa, gizarte zerbitzuak, tokiko garapena, kultura eta herri ondarea, eta berdintasuna eta parte-hartzea) oinarri hartuta landu da proposamena.

2022ko aurrekontuetarako kontuan hartu diren irizpide nagusienetakoak honakoak izan dira: Gizarte Zerbitzuetan orain arte txertatutako zerbitzu berriak indartzea, Udalaren antolaketa txukuntze bidean pausoak ematea, herriko beharrezanetan lehentasunak markatzea, eta, bereziki, kultura eta partaidetza sustatzea.

Datorren urteko jardunerako pandemia aurreko zifrak berreskuratu nahi izan ditu kulturalan Gobernuak, atal honetako aurrekontua %10 igoz. Horrez gain, adibidez, Tene Mujika hil zela 40 urte bete diren honetan, urte osoan zehar

hainbat ekintza antolatzen hasita dago udala, arlo ezberdinak batuz (Kultura, Euskara, Berdintasuna...) eta Mujikaren jarduna gogora ekarriz (olerkigintza, prentsa, euskara...).

Partaidetzan, berriz, 2020an Partaidetza Batzordeko kideek GFAko teknikariek hasitako ibilbideari jarraitzea eman zaio Itziar Gonzalez urbanistak gidatutako prozesuan, era-gile, udal langile eta dinamizatzaileekin batera. Eta, aurrerantzean ere, horixe izango da asmoa, kultura parte-hartzailea errotu eta ohitura berriak sustatzeko lanari segida ematea.

Eragileek eta, azaro bukaeran egindako tailerretan, herritarrek egindako ekarpenak oinarri hartuta, lehentasuneko gaiei helduko zaie (kultur-gune baten beharra, etxebizitzak, hirigintza inklusiboa...) Dagigun partaidetza

gunean lantzeko. Arlo honekin lotuta, Europako Funtsetarako hautagai izan daitekeen Zumardiari buruzko oinarritzko proiektua prestatuko da (65.000€), tailerretan jaso diren ekarpenak kontuan hartuta.

Udal antolaketan, elkarlanean jarraituko du Gobernuak bai alderdiekin eta auzo udalarekin, eta baita eragileekin ere. Horrez gain, proiektu berriak ere landu eta martxan jarri nahi ditu, ludoteka, esaterako.

Inbertsioei dagokienez, askotarikoak izango dira, eta 400.000€ aurrekusi dira, besteak beste, hauetarako: Errotazar zelaiko belar artifiziala aldatzea, udal kiroldegian eguzki plakak instalatzea, plastikoko bilketa kanpaina abian jartzea, asfaltatze lanak egitea, azoka ikasteko gune izan dadin birmoldatzea, Osio 2 eraikina eraistea...



Pandemia aurreko zifrak berreskuratu nahi izan ditu kulturalan Gobernuak, atal honetako aurrekontua %10 igoz. Argazkiak: A. Salegi.

Con la llegada del otoño el Gobierno Municipal inició el proceso de elaboración de los presupuestos de 2022. En noviembre se realizaron las reuniones de trabajo con los partidos y con representantes de Itziar Auzo Udala. Recibidas las aportaciones de todas las partes, y una vez tratadas en la comisión de Hacienda, se aprobarán en el Pleno extraordinario que se celebrará el 21 de diciembre. El Gobierno Municipal prevé un presupuesto consolidado de unos 8.800.000€.

Nolako Deba nahi dugun marrazten ari gara elkarrekin

Dagigun partaidetza gunearen barruan lehen prozesua amaitzear dago. Zumardiari lotutakoa da. Behar zehatz batetik abiatuta (Zumardiko pasealekuari buruzko herritarren eztabaida irekitzea), Debako Udalak, bere parte-hartze batzordetik, udalerriko eragile sozial eta administratibo guztien kultura parte-hartzailea eta demokratikoa aktibatuzko prozesu sakon eta trinkoa abiatu zuen 2021eko martxoan, eta hainbat ekimen egin ondoren, abenduaren 18an egingo da itzulketa saioaren aurkezpena (aldizkari hau etxeetara banatzen denerako egina egongo da). Bertan azalduko dira azken saioaren nondik norakoak. 2022. urte hasieran emango zaio amaiera prozesuari itzulketa saioarekin.

Hainbat interes elkar-gurutzatzen diren Zumardiko ingurune horretan, interbentzio ezberdinak gauza daitezke, eta horiek guztiak uztartzea da lehenengo prozesu honen helburuetako bat. Tartean, Euskal Kostaldearen Geoparkeak Deban Paleolitoko haranaren musealizazio-proiektu bat garatzea aurreikusita dauka. Proiektu hori Kalbeton Zumarditik bertatik abiatuko litzateke, eta Deba ibaian gora joango litzateke, gorago dauden haitzuloetara. Ekimen horrek, ibilbide horren hasiera Zumardian kokatzen duenez, Udaleko partaidetza batzordeak uste du funtsezkoa dela herritarrei galdetzea; izan ere, Zumardia gune estrategikoa da, herritarren erabilera handikoa, eta ez litzateke jarduerarik ulertuko Debako jendearen ezagutza eta ekarpenik gabe.

Hala bada, barne lanetan aritu ondoren, azken hilabeteotan askotariko ekimenak egin dira herritarren ekarpenak jaso, eta urte amaieran proposamenak egon daitezzen mahai gainean.

Azaroan kultura, hirigintza, karsta eta landa ekonomia ardatz hartuta mahai-inguruak egin ziren. Karst-ari

buruzkoak Euskal Kostaldearen Geoparkeak antolatutako jaialdiaren barruan. Horietan herritarrek gai horiei lotuta dituzten kezkak, gogoetak, proposamenak... azalatu dira, eta oinarrietako bat izan dira ondoren etorriko diren lanketan.

Parte hartzaileek ondo baloratu dituzte orain artekoak, eta hauek ekarri dute orain artean arreta jartzen ez zen gaiei erreparatzea, jakin mina sortu da, eta kontzientzia hartu, hirigintzan, kasu.

Azaroan bertan, azken bi asteburuetan, ingurunea bertatik bertara ikusteko ibilbide gidatuak eta tailerrak egin dira. Ibilbideetako parte hartzaileek, media, itsasoa, Zumardia bera eta Itziar ardatz hartuta, hauek bisitatu zituzten, eta Itziar Gonzalez arkitektoaren zein Gilen Garcia alkatearen azalpenak jaso zituzten. Tailerretan, berriz, planoen gainean, gazte boluntarioek osatutako dinamizatzaile taldearen laguntzarekin aritu dira herritarrek Deba berria marrazten.

Esan bezala, abenduaren 18an egingo den saioan eman da orain arte prozesuak utzitako emaitzaren berri, urte hasierako itzulketa saioaren nondik norakoak azaldu dira. Hurrengo Debaberrin zabal landuko da gaia.





Los trabajos 'Denbora pasa, eboluziorik ez' y 'Beldur barik bizi nahia' ganadores de concurso 'Beldur Barik'

El 26 de noviembre se entregaron los premios del concurso 'Beldur Barik' en Agirre Jauregia. Jóvenes del Gazteleku de Deba e Itziar acudieron a ver los trabajos audiovisuales que participaron en el concurso dirigido a jóvenes de entre 12 y 26 años.

Este año se han presentado un total de 5 trabajos, en la categoría 1 (12-13 años) 3 audiovisuales y en la categoría 2 (14-18 años) 2.

En la categoría de 12 y 13 años, la obra ganadora ha sido 'Denbora pasa, bilakaera ez', presentada por Ani

Sarasketa, Jon Etxeberria y Leire Larra. En la categoría de 14 a 18 años, Miren Agirrezabalaga, Nerea Urbizu, Nora Azpiazu, Laura Amasorrain, Janire Prieto, Lucía Saa y June Lizarzaburu han sido las ganadoras con el audiovisual 'Beldur barik bizi nahia'.

El objetivo del concurso es visibilizar, a través de producciones audiovisuales, cómo reaccionan las personas más jóvenes ante las situaciones de desigualdad y cómo afrontan las manifestaciones de la violencia sexista con actitud 'Beldur Barik'.

Azaroaren 25ean ospatzen den Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren testuinguruan hainbat ekimen egin dira aurten ere Deban. Honela, kultura ekimenetan eta aldarrikapenerako deialdietan parte hartu dute herritarrek. Udalbatzak adierazpen instituzionala onartu zuen, ohi denez. Bestetik, Emakunde antolatzen duen gazteei zuzendutako Beldur Barik lehiaketa ere egin da.



“Lehiaketaren helburua da, ikus-entzunezko produkzioen bidez, gatzetxoek ezberdintasun egoeren aurrean nola erantzuten duten, eta indarkeria sexistaren adierazpenei aurre nola egiten dieten bistaratzea”



Se van a realizar numerosas actividades de diferente índole para recordar la figura y trabajo de la escritora Tene Mujika



2022an Tene Mujikari aitortza egiteko hainbat ekimen egingo dira Udalak sustatuta

2021eko irailaren 16an Tene Mujika idazle eta olerkari debarra hil zela 40 urte bete dira. Debako Udalak hainbat ekimen egingo ditu urteurrenaren urtean zehar bere pertsona eta lana ezagutzera emateko. Izan ere, bere garaiko emakumeekin gertatzen den bezala, ez da garai hartako gizonena bezain ezaguna, eta, beraz, ahal den neurrian zuzentzea erabaki da, errekonozimendu bat eginez.

Urteurrenaren egunean bere izena daraman, lehenik lehiaketari, eta ondoren bekari esker idatzi diren liburuen azalekin erakusketa inauguratu zen, eta mahai-ingurua ere egin zen.

Datorren urtean zehar, eta Mujikak landu zituen arlo desberdinak jorratuz, literatura, antzerkia, poesia... askotariko formatuetan egingo dira ekimenak.

Urtarrilean bertan ezagutuko da XVI. Tene Mujika bekaren irabazlea zein den. Martxoan, berriz, eta aintzat hartuta emakume langilearen eguna, Ostolaza udal liburutegiko literatur klubean feminismoari buruzko irakurketak landuko dira. Hilabete honetan ere argitaratuko da Cira Cresporen ikerlana jasotzen duen *Tene Mujika, emakumea* liburua.

Apirileko liburuaren egunaren testuingurua izango da errekonozimendurako beste une bat. 2020an Tene Mujika

bekari bi sari eman ziren. Jon Abrili Ezkutututako eskuak: *emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian lanagatik* eta Erika Lagomari eta Estitxu Fernandezi *Amatasun feminista lanagatik*. Bi horietako bat aurkeztuko da orduan, eta bestea udazkenean. Tene Mujikak idatzitako olerkien irakurketa ere egingo da hilabete horretan.

Maiatzaren hasieratik ekainaren erdira *Itzalpeko emakumeak* erakusketa egongo da elizako kalostran.

Uztailean urtero egiten den Iturri ondoan ekimenean ere lekua izango du Mujikak, kasu honetan, bertso-saio formatuan. Ikus-entzunezkoan ere izango du aitortza, irailean egiten den Animadeba animazio jaialdian estreinatuko baita Aitor Oñederraren eta Bego Vicarioren Mujikari buruzko filma.

Udazkenean, 2020ko bigarren liburu irabazlearen aurkezpenarekin batera, ikastetxeetara egingo da salto. Izan ere, ezinbestekoa da gaztetxoek ere ezagutu dezaten Tene Mujika, memoria berreskuratu eta galdu ez dadin. Mendata institutuan eta Gaztelekuan hizkuntza eta generoa lantzeko jarduerak egingo dira. Eta material didaktikoa ere sortuko da ikastetxeetarako. Mujikaren bizitzan oinarritutako ipuin edo komikia sortzeko asmoa ere badago, herriko irudigile eta ilustratzaileek eginda.



Gobernu Planean 2021erako aurreikusitako neurri gehienak beteta, balorazio oso ona egiten du Udal Gobernuak

2019ko udazkenean aurkeztutako Gobernu Planak 100 neurri biltzen ditu, 5 ardatzetan sailkatuta. 2021erako 30 neurri aukeratu zituen udal gobernuak, eta, horietatik, 19 egin dira, 7 martxan jarri eta 4 datozen hilabeteetarako utzi dira.

UDAL ANTOLAKETA. Alde Zaharreko trafikoa erregularizatzeaz eta aparkalekuak berrantolatzeaz gain, eraginkortasun energetikorako plana lantzen hasi da Udala, Udaltzain buruaren plaza betetzeko prozedura martxan da, baita Udaleko webgunearen eguneraketa ere.

GIZARTE ZERBITZUAK. Etxebizitza alokairuentzat dirulaguntzak emateko oinarriak onartu dira eta deialdia martxan dago, Gaztelekuan hainbat mantentze lan egin dira, Gabonen bueltan Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa banatuko da etxeetara...

TOKIKO GARAPENA. Baserri bideen konponketa (San Roke

bidea eta datozen asteetan Santa Katalina bidea), Luzaroko patioko estalpea eta merkataritza sustatzeko egin diren kanpainak azpimarratu daitezke.

KULTURA ETA HERRI ONDAREA. Aurreikusitako neurrietatik, EPA eraikinari erabilera ematen hasi zaio, baina elkarteen gida aurrerago egingo da.

BERDINTASUNA eta PARTE-HARTZEA. Neurri esanguratsuena partaidetzarena izan da. Puntu ilunen edo hirigintza inklusiboaren lanketa aurrerago landuko da, eta azaroan egindako ibilbideen formatua errepikatuko da auzokako azterketak egiteko.





Con el cumplimiento del 63,5% de las medidas previstas para 2021 y la puesta en marcha del 23,5%, el Gobierno Municipal hace una muy buena valoración del trabajo realizado con el Plan de Gobierno. El 13% restante se realizará más adelante. El 2021 se ha situado todavía en un contexto de crisis social, sanitaria y económica agravada por la Covid-19, por lo que, además de los proyectos previstos en el Plan de Gobierno, el Gobierno Municipal ha gestionado las consecuencias en época de pandemia sanitaria. Ha priorizado especialmente el mantenimiento de los nuevos servicios que se han creado en los Servicios Sociales, así como a la recuperación de iniciativas culturales.

HONAKOA DA, NEURRIZ NEURRI, EGINDAKO BALORAZIOA:

Berdez: gauzatu direnak (19 - %63,5)

Urdinez: martxan jarri direnak (7 - %23,5)

Gorritz: gauzatu ahal izan ez direnak (4 - %13)

UDAL ANTOLAKETA

4. Udaltzain burua aukeratzeko hautaketa prozesua gauzatzea.
10. Desfibriladore berriak instalatu eta ikastaroak eskaintzea.
11. Udal argiteria eguneratzea.
12. Alde zaharreko trafikoa erregularizatzea.
13. Aparkalekuak berrantolatzea.
15. Udal eraikinen eraginkortasun energetikorako plana egitea.
18. Webgunea berrantolatzea.
21. Lokalak etxebizitza bilakatzeko ordenantza lantzea.

GIZARTE ZERBITZUAK

29. Adinekoen etxebizitzetako segurtasuna eta autonomia handitzea.
32. Deba herri inklusiboagoa egitea.
33. "Ongi etorri Deba eta Itziarra" harrera protokoloa diseinatzea.
34. SOS arrazakeriarekin lankidetzat indartzea.
35. Herriko kooperazio taldeei diru-laguntzak ematen jarraitzea.
36. Herritarrei Gizarte Zerbitzuen inguruko informazioa helaraztea.
40. Gaztelekuan mantentze lanak gauzatzea.
41. Etxebizitza alokairua bultzatzeko diru-laguntzak emateko aukera aztertzea.

TOKIKO GARAPENA

48. Baserri bideen konponketan sakontzea.
51. Kirol instalazioak hobetu eta berritzea.
52. Hezkuntzari lotutako eraikin publikoetan beharrezkoak diren moldaketak egitea.
53. Landa eta natur bideak balioan jartzea.
55. Bertako merkataritza sustatzea.
57. ETSrekin elkarlana sustatzea.

KULTURA ETA HERRI ONDAREA

81. Herriko elkarteen gida sortzea.
82. EPA eta Arte Eskolaren eraikinen erabilera aztertzea.

BERDINTASUNA eta PARTE-HARTZEA

89. Berdintasunarekin zerikusia duten aldarrikapen egunak babestu eta lantzea.
90. Parte-hartze prozesuak martxan jartzea.
91. Galdetegia osatu eta ekarpenak jasotzea.
94. Auzoka parte-hartze bilkurak egiteko dinamika martxan jartzea.
98. Udalerriko puntu ilunak identifikatu eta diagnostikoa egitea.
100. Legealdian zehar eta amaieran Gobernu Planaren balorazioa egitea.

Lehen aukera herria' herriko merkataritza sustatzeko kanpaina berria

Herritarrek herriko merkataritza eta zerbitzu guneetan kontsumitzea bultzatzeko oraingo 'Lehen aukera herria' kanpainak puntu programa bat jarri du martxan. Puntuak erosketak egitean jasoko dira, baita itsasteko txartelak ere, erosleek pila ditzaten. Puntu kopuru jakin bat pilatuta kanpaina parte hartzen duten establezimenduek produktuekin osatutako sortak eskuratu ahal izango dira.

Kanpaina abenduaren 1etik 31era egingo da, eta 2022ko urtarrilaren 8an bizikleta elektriko bat zozketatuko da parte hartzen duten pertsonen artean.

1.200 puntu banatuko dira izena eman duten 17 saltokien artean: Maxpe ileapaindegia, Maitane Boutique, Uzuri optika, Beti Eder estetika zentroa, Janire eta Maitane ileapaindegia, Sasoiko ekodenda, Masillo liburudenda, Ainitze fisioterapia, Estilo arropa denda, Itziar ileapaindegia, Lamariano oinetakoak, Gora Behera elikagai denda, Mugan arropa denda, Zuriñe Gredilla artisaua, Apain arropa denda, Ieraenea ekodenda eta Lizaso harategia.

Debako Udalak 12.000€ jarriko ditu puntutan. 10 euro baino gehiagoko erosketagatik puntu bat emango zaio erosleari, 10 euro bakoitzeko bat. Erosketa bakoitzeko puntu muga 4 puntu izango dira.

Ekimenean parte hartzen duten establezimenduek haien produktuekin osatutako loteak egingo dituzte. Puntu kopuru bat beharko da loteak eskuratzeko. Herritarrek kopuru hori lortzen duenean, produktuen lotea jasoko du, hori izango da eroslearentzat onura, "oparia".


16 urtetik 29 urte bitartekoei 2 puntu emango zaizkie 10 euroko erosketa bakoitzagatik, gazteek herrian erostea bultzatzeko.



Esta edición de la campaña 'Lehen aukera herria' funciona con puntos que se pueden canjear por lotes de productos que ofrecen los establecimientos adheridos.

La campaña para impulsar el comercio local se realiza del 1 al 31 de diciembre.





Se pone en marcha el programa ExerCita-Deba 2021-2022

El Ayuntamiento de Deba y CITA-alzhéimer han puesto en marcha, de nuevo, el “Programa ExerCita para el cuidado de la salud cognitiva, 2021-2022”. Esta iniciativa tiene como objetivo prevenir el deterioro cognitivo y fomentar hábitos cerebro-saludables en las personas mayores de 60 años de Deba.

Las personas, que se han apuntado, dispondrán de un libro de actividades para realizar en sus domicilios y participarán en seis sesiones grupales online guiadas por los profesionales de CITA-alzhéimer, en euskera y castellano.

Gracias a este programa las personas participantes podrán adquirir conocimientos sobre el funcionamiento del cerebro, ejercitarán su mente, entenderán qué con las funciones cognitivas y cómo potenciarlas, y aprenderán estrategias para mejorar en el día a día.

El programa ha comenzado el día 14 de diciembre con la charla presencial “Introducción al Programa ExerCita” en la Kultur Elkartea.

El año pasado ya se llevó a cabo esta iniciativa en Deba, partiendo de la base que crece la preocupación social por el envejecimiento de la población y sus retos de futuro. Además, en la situación de pandemia, en la que también se establece el distanciamiento social o la cuarentena, las personas mayores son especialmente vulnerables.

'ExerCita' programaren helburu nagusia herritarrei gaitasun kognitiboak sustatzen eta zaintzen laguntzea da, egunerokotasunean ohitura kognitibo onak hartzen laguntzeko.

'ExerCita', 60 urtetik gorako pertsona osasuntsuei edota narriadura kognitibo arina dutenei zuzenduta dagoen estimulazio kognitiborako programa integrala da.

Otsailaren 25era arte aurkez daitezke lanak 'Deba 100 hitzetan' literatur lehiaketan

Hala nahi duen edonork har dezake parte. Ohi bezala bi modalitate egongo dira: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Deba izango da idazlanen gaia, haren historiarekin, paisaiarekin edota, zuzenean edo zeharka, harekin lotuta dagoen edozerekin zerikusia izan beharko du, eta lanek ez dute 100 hitz baino gehiago izango, izenburua alde batera utzita.

Lehen saria 300 eurokoa izango da, bigarrena 200 eurokoa eta 150 euro saririk gabeko herriko lan onenari, modalitate bakoitzeko.

Paperean edo digitalean aurkeztu ahal izango dira lanak. Gutunazal handi baten kanpoko aldean pseudonimoa idatzi; eta barruan, idazlanaz gain, beste gutunazal bat sartu beharko da honako datuekin: izen-abizenak, helbidea, adina eta telefonoa; baita helbide elektronikoa ere, izanez gero. Turismo bulegoan aurkeztu beharko dira 2022ko otsailaren 25eko 14:00ak baino lehen.



Epaimahaia kultura sailak aukeratutako pertsonak osatuko dute, eta haren erabakia apelaezina izango da.

Lan guztiak antolatzaileen eskuetan geratuko dira, Udalaren eta Cárdenas Fundazioaren eskuetan. Gainera, lanen erreproduzio eta hedapen eskubideak ere izango dituzte.

Lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izango dira. Edozein kalte edo erreklamazio izanez gero, parte-hartzaileek izango dute ardura osoa; antolatzaile eta babesleek ez dute inolako erru edo erantzukizunik izango.

Lehiaketan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar.

Se celebra la séptima edición del concurso literario 'Deba 100 hitzetan', organizado por la fundación Cárdenas y el Ayuntamiento de Deba. Participan obras inéditas de menos de 100 palabras sobre Deba. Los trabajos que se presenten al concurso deberán entregarse en la oficina de turismo antes de las 14:00 horas del día 25 de febrero de 2022.



Nagore Dorronsoro Aizpurua, Arantza Iriondo Laka eta Rafa Bravo Arrizabalaga saritu zituzten literatur sariketaren 6. edizioan. Argazkiak: A. Salegi.



Argazkia: A. Salegi.

Euskararen erabileran urrats berriak egiteko ekimenak Euskararen Egunaren testuinguruan

Uda partean, eta UEMAK sustatuta ostalaritza euskalduntzeko ekimena egin zen. Ildo horretan indar eginez, ostalaritza eta merkataritzan euskara erabiltzeko 'Betikoa. Gertukoa. Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz' kanpaina egin da Eusko Jaurlaritzak sustatuta, eta bat egin dute EUDELeK, UEMAK, hiru Aldundiek, EAEko 60 udalek - tartean Debakoak-, hainbat koadrila nahiz mankomunitatek.

Merkataritzaren testuinguruan euskararen erabilera konfiantzarekin lotzen du kanpainak. Tokiko merkataritzak berezko duen gertutasunak eta betikotasunak konfiantzazko harremana sortzen du. Era berean, harreman horrek kalitatearekin lotura dauka, bai produktuarena eta baita harremanarena ere.

Kanpainaren lelo orokorra salerosketan ematen den harremanarekin lotu da. Izan ere, "Jarri betikoa" da denda edo taberna batean konfiantza handiena ematen duen esaldia. Hala, euskara egunerokotasunean erabiltzeko hizkuntza gisa eta konfiantza sortzeko bide gisa aurkezten du kanpainak eta euskararen erabileraren inguruan hausnartzea eta sentsibilizatzea du helburu.

Bestetik, eta Zuhatza Euskara Elkarateak sustatuta, eta herriko hainbat kultur eragile eta Udalaren parte-hartzearekin ere izaera askotako ekimenak egin dira. Horietako bat abenduaren

2an egindako mintzodromoa izan da. Horren bitartez euskaraz jarduteko aukera eskaintzen da, hainbat gairen inguruan iritziak trukatzeko gunea baita. Adin eta profil ezberdineko herritarrek parte hartu zuten ekimenean, hizkuntza maila ezberdina dutenak. Herritarren artean harremanak sendotzen ere laguntzen dute halako ekimenek.

Haurren hizkuntza ohituretan aldaketak eragiteko ere, helduek haiengan duten eraginari ere erreparatu zaio, eta Apakin Guraso Taldeak gauzatu du Deban 'Haurren haurrean helduok heldu' Euskaltzaleen Topaguneak sustatutako kanpaina. Azaroaren 22tik abenduaren 5era bitarte egin da haurren zuzeneko heldu erreferenteek, (guraso, hezitzaile, senide, lagun...) beraien arteko, hau da, helduen arteko, hizkuntza-praktikak aldatzeko eta euskara gehiago erabiltzeko aktibazio ekimena.

En el contexto del Día Internacional del Euskera que se celebra el 3 de diciembre, se han llevado a cabo en Deba diversas iniciativas para dar nuevos pasos en la normalización del euskera y su uso, organizadas por diferentes agentes.



“El puente nos ha enseñado una especie de arqueología de la construcción que merece ser divulgada”

Entrevistamos al equipo que dirige la obra del puente que une Deba y Mutriku. Javier León González, que ejerce en este caso de portavoz, responde las preguntas de Debarri. La Dirección de la obra la realiza la UTE DO Puente Deba (FHECOR-INJELAN SL) siendo el director de obra el Ingeniero de caminos: Fco. Javier León González. También intervienen otros técnicos: Iñaki Jaime Azpiazu (ICCyP), Isabel Lorenzo Pérez (ICCyP) y Jon Corral Ansa (ITOP). La constructora es la UTE PUENTE DEBA (Harri Construcciones & mampostería – Moyua SL).

"Aste gutxi batzuetako atzerapena izan arren, lanak 2022ko lehen hilabeteetan amaitzea espero da"



"Lan zaila da; izan ere, nahiz eta egikaritzea erraztu duten baliabide modernoak izan, konponketa XIX. mendearen erdialdean erabilitako eraikuntza-prozedura berarekin egiten ari dira"

¿Pudo haberse derrumbado del todo?

Los daños que sufrió el puente fueron importantes como evidencia el que se tuvieron que montar durante las obras de emergencia una cimbra para sustentar el puente y evitar males mayores, y que posteriormente se hayan tenido que desmontar 2 vanos para volver a reconstruirlos. Si no se hubiesen hecho los trabajos de emergencia se pudo haber derrumbado.

¿Había diferentes alternativas para la rehabilitación del puente?

El puente es Bien Cultural Calificado del Camino de Santiago a su paso por el País Vasco (Decreto 2/2012 del Gobierno Vasco), lo que obligaba a una restauración de la configuración previa. Se barajaron diferentes procedimientos constructivos, estimándose como más adecuado el que se está realizando.

¿En qué consisten las obras de reparación del puente?

Las obras consisten en reforzar con micropilotes la cimentación de la pila intermedia, que es la que sufrió el asiento, y preventivamente la de las otras dos pilas para que no vuelva a ocurrir lo sucedido con la pila central. Dos bóvedas sufrieron daños por lo que ha sido necesario desmontarlas y

volver a reconstruirlas. Finalmente se reurbanizará la zona superior renovando la redes de servicios existentes como alumbrado, gas, saneamiento, telefonía, etc., y pavimentado del puente.

¿Qué dificultad entraña acometer este tipo de obra?

Es una obra dificultosa porque, aunque contamos con medios modernos que han facilitado la ejecución, como: cimbra, andamios, puente-grúa, micropilotadoras, etc., la reparación se está realizando con el mismo procedimiento constructivo empleado a mediados del s. XIX y sin utilizar nuevos materiales como por ejemplo el hormigón armado.

¿Se puede considerar esta obra como un reto profesional?

Sí. Es un reto profesional y bonito al mismo tiempo. Parte del reto ha consistido en montar una caseta explicativa, para los visitantes, de la historia del puente, del proyecto y de la configuración de este tipo de estructuras.

¿Os habéis encontrado con alguna sorpresa no esperada?

No hemos encontrado grandes sorpresas llamativas. Sí hemos encontrado señales que nos han permitido entender cómo se construyó hace 150 años, una especie de arqueología de la construcción que merece ser divulgada.

¿Cómo va la marcha de los trabajos?

A pesar del retraso de unas pocas semanas, se espera concluir los trabajos en los primeros meses de 2022.

¿Estará el puente abierto para primavera?

Esperamos que sí. Quisiéramos aprovechar esta entrevista para recordar a los usuarios del puente que éste, además del valor funcional que se le supone, tiene aspectos históricos y culturales (la técnica también es cultura) que queremos compartir. Para eso se montó una exposición a la que se quisiera dar continuidad.

¿Qué le ocurrió al puente en julio de 2018?

El 5 de julio de 2018, sin que se hubiese observado movimiento alguno en el puente, se produjo un asentamiento vertical y un giro en la pila central del puente. La pila tuvo un descenso medio de 0,80m.

Las pilas se apoyan sobre un conjunto de pilotes de madera hincados en el lecho. Los pilotes fueron atacados por un xilófago, sin descartar otros, llamado Teredo Navalis o Broma. Este molusco xilófago hizo perforaciones en la madera debilitando y reduciendo la capacidad mecánica de los pilotes y provocando el colapso de éstos y el asentamiento de la pila. Las deformaciones que tuvo la pila central acarrearón graves daños a todo el puente, principalmente a las dos bóvedas centrales.

Emakume migratuen gizarte-sarea zaintzeko, ahalduntzeko eta indartzeko gunea sortu da

**En estas
sesiones han
participado 13
mujeres
migradas de
entre 30 y 50
años que ejercen
de cuidadoras.**

Debako Udalak gizarte zerbitzuen bitartez sustatu du ekimena, bertan artatutako emakumeen testigantza eta bizipenak jasoz, eta horiei irtenbide edo laguntza bat emateko asmoz. Gainera pandemian asko izan ziren egoera are zaurgarriagoan geratu ziren emakumeak, oinarrizko beharrak bete gabe, eta babesgabe geratuz. Zer esanik ez “interna” lanetan zeuden horiek, konfinamenduak iraun zituen egun eta ordu guztiak eman baitzituzten lanean, lantoki (eta beraien etxe) horretatik irten ezinik, eta ondorioz lanaldi luzeegiak eginez, ordainsari handiagoak jaso gabe.

Hau horrela, Debako gizarte zerbitzuetako langileen planteamendua emakume hauentzat espazio bat sortzearena izan zen. Emakume hauen gizarte sarea indartu, eta beraien artean aliantzak sortuz, komunitatea eta hauen bizi baldintzak indartzeko helburuarekin, horretarako beharrezko erreminta eta formakuntzak emateko pertsona bat kontratatuz. Udalak Zabaltzen Sartu Kooperatiba Elkarteak kontratatu zuen, gizarte hezitzaile bat jarriz proiektuaren dinamizazioa egiteko.

Maiatzaren 25ean hasi eta urriaren 4an amaitu zen. Guztira 60 ordu egin zituzten, astean 4 ordu. Saio hauetan zaintzaile lanak egiten dituzten 30 eta 50 urte bitarteko 13 emakume migratuk parte hartu dute, denbora tarte desberdinetan.

Espazio honen metodologia oinarrian feminista izan da, izan ere emakume hauen jabekuntza eta eskubideen defentsa izan dira helburu nagusi. Gune parte-hartzailea ere izan da, haien beharrei erantzunez, haiek proposatutakoak izan baitira landutako edukietatik asko. Bestalde espazio seguru eta eroso izateari ere lehentasuna eman zaio, haien bizi historiari eta kontakizunei errespetuz eta konfidentziasunez erreparatuz. Jatorri eta kultura ezberdinetako emakumeak zeudenez, talde kultur anitza izan da, denen sinesmen eta ohiturak errespetatu dituen.

Este proyecto nace con el objetivo de dar un espacio a las mujeres migrantes que trabajan en el ámbito doméstico y de cuidado en Deba, y fortalecer y empoderar el tejido social. De hecho, los datos y las diferentes informaciones nos dicen que las condiciones de vida y de trabajo de estas mujeres son cada vez más precarias.

San Rokeko baserri bidea konpondu da

Urriaren amaieran egindako lanekin San Roke baserri bidea konpondu da. 2019-2023 Gobernu Planean, baserri bideen konponketan sakonduko zela zehaztu zen. Arreta jarritz landa eremurako bideetan, erabiltzaileek

izan ditzaten bide duinak eta seguruak ez soilik herriguneetan. Santa Katalina bidea ere laster konponduko da.

Lehenengo garbitze lanak egin dira, bide bazterrak txukundu, eta lehengo zabalera berreskuratu da; ondoren, 2 egunetan, asfaltatze lanak egin dira. 34.944,68€-tako (BEZ barne) aurrekontuarekin,

GFAk 27.366,61€ko diru-laguntza eman du. CONSTRUCCIONES LASUEN, S. A. enpresak egin ditu asfaltatze lanak.

Hurrengo lana Santa Katalinako bidea egitea izango da, Iparragirre baserriko bidegurutzearaino osorik asfaltatuko da, baita Buenos Aires etxera bidean dauden gunekaltetuenak ere.



Gaztelekuko leihoak aldatu dira

Osio kalean dagoen Gaztelekuaren lokaleko hegoaldera ematen duten 9 leihoak eta pertsianak aldatu dira. Hainbat arazo antzeman zitzaizkien zaharrei, batetik, aroztegiak jatorrizko aluminiozko leihoak ziren eta ez zuten ez aire kamerarik ezta hautsitako zubi termikorik ere. Inolako isolamendu termikorik, beraz, ez zuten. Jarri diren berriak isolamendu termiko handiko materialak erabiliz egindakoak dira, eta ondorioz, erosotasuna eta eraginkortasun termikoa hobetu dira.



Reapertura del servicio de orientación laboral

Lanbide en colaboración con Zabaltzen Sartu coop. Elk y el ayuntamiento de Deba vuelven a poner en marcha el servicio de orientación dirigido a las personas demandantes de empleo.

El horario de atención es los viernes de 10:00-15:00 horas con cita previa llamando al 618 777 070 o solicitándola vía email: yolandaur@zabaltzen.sartu.org.



Udalerri euskaldunetako bulegoetan euskara lehenesteko konpromisoa hartu dute hiru finantza erakundek

Finantza alorrean euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu eta aurkeztu dute urriaren 20an UEMAK, Laboral Kutxak, Kutxabankek eta Bankoa ABANCAk, udalerri euskaldunetako 44 alkaterekin batera. Gilen Garcia alkateak sinatu du hitzarmena

Debako Udalaren izenean Bergaran egin den ekitaldian. Hizkuntza irizpideak adostu dituzte UEMArekin, eta udalerri euskaldunetan dituzten bulegoetan euskara lehenetsiko dute hiru finantza erakundeek. Debako Udalak Laboral Kutxarekin, Kutxabankek eta UEMArekin sinatu du hitzarmena urriaren 20an egindako ekitaldian. Hartutako konpromisoarekin Debako herritarrei bermatzen zaie zerbitzuak euskaraz jasotzea, horretarako oinarri bat ematen die.

Herritarrei begira, ekimenaren aurkezpenaren zera esan zuen UEMAKo lehendakari Iraitz Lazkanok: “Batetik, kalitatearen osagai funtsezkoa dela bezeroak harremanetarako hizkuntza hautatu ahal izatea. Bestetik, bi hizkuntza ofizialen artean desorekan dagoen hizkuntza ahula dela euskara eta, beraz, hau lehenesteko neurriak hartzea ezinbestekoa dela, euskara zabaltzeko eta sendotzeko asmoz, beti ere bezeroek euskaraz ahoz eta idatzi jarduteko duten eskubidea modu argi eta garbian aitortuz”.

Deba
ETORKIZUNA ORAIN

¿Tienes alguna propuesta o sugerencia para el ayuntamiento?

Iradokizunik, proposamenik baduzu udalari egiteko?

Kalean konpondu beharreko zerbait ikusi duzu?

Kezkaren bat duzu?

¿Te preocupa algo?

¿Has visto algún desperfecto que arreglar en la calle?

ESAN UDALARI

www.deba.eus

Deporte escolar para niñas y niños de Deba e Itziar que necesiten adaptación

Con el inicio del 2022 se pondrá en marcha el deporte escolar para niñas y niños que necesiten adaptación en cinco localidades. El Ayuntamiento de Deba e Itziariko Auzo Udala participan

en la iniciativa junto a los ayuntamientos de Aizarnazabal, Zestoa, y Zumaia. La oferta deportiva se lleva a cabo en Zumaia.

En Gipuzkoa una de cada diez personas tiene certificado de discapacidad y, de hecho, los ayuntamientos, diputaciones y federaciones se han unido para garantizar el derecho de las niñas, niños y jóvenes con diversidad funcional a

practicar deporte escolar de calidad. Además, se ha dotado de carácter comarcal al proyecto.

Este colectivo es doblemente perjudicado en estos municipios pequeños: además de ser perjudicado por tener discapacidad, también lo es por estar en zonas rurales o en pueblos pequeños. El proyecto pretende, por tanto, hacer frente a ambas situaciones.



Aizarnazabalen egin zuten ekimenaren aurkezpena herrietako ordezkariak, Itziariko auzo alkatea egon zen Debaren eta Itziarren izenean.

AGENDA

ABENDUA

- 24. OLENTZERO eta MARI DOMINGI.** Kalez kale
- 27-28 HAUR PARKEA.** Aldats pilotalekuan.
- 28 20:00 Antzerkia: "GOOD SEX, MARITXU!"** (gaztelera). Kultur Elkartean.
- 31 12:00. SAN SILVESTRE Lasterketa.** Foruen plazan.
- 31 13:30 MUSIKA BANDAREN** kontzertua. Plaza Zaharran.

URTARRILA

- 5 19:00 Errege KABALGATA.** Kaleetan zehar.
- 9 19:00. Zinema: "FALLING".** Kultur Elkartean.
- 16 19:00 Zinema: "PERFUMES".** Kultur Elkartean.
- 23 19:00 Zinema: "UNA JOVEN PROMETEDORA".** Kultur Elkartean.
- 30 19:00 Zinema: "JUDAS Y EL MESÍAS NEGRO".** Kultur Elkartean.



- **EZAGUERA:** Lurraldea, euren elementu naturalak zein historiko-etnografikoak ezaguera indartzea, baita horien artean sortzen diren harremanak ere.
- **SENTSIBILIZAZIOA:** Inguruko ondasun naturala eta ondarezkoaren balioen, eta horrek izan ditzakeen kontserbazioko arazoen inguruko sensibilizazioan sakontzea.
- **GAITASUNA:** Arazoei irtenbideak bilatzeko gaitasuna lantzea.
- **JOKAERA:** Zentzu zabalean, ondarearekin interesa eta kezka agertzeko baloreak eta jokaerak erdiestea.
- **PARTE-HARTZEA:** Irtenbideak abian jartzeko parte-hartzea sustatzea.

Geoeskolak: geologia eta hezkuntza uztartzen dituen proiektua

Ondare geologikoak lurraren memoria gordetzen du eta hori ulertzea ezinbestekoa da egun ditugun ingurumen erronka askori aurre egiteko. Ondare geologikoa natur ondarearen zati garrantzitsu bat da eta Geoparkean lanean dihardugu, gazteen hezkuntzaren bitartez, bertako garapena bultzatzeko eta ondare geologiko hau babesteko.

Konpromiso hori berresten du Geoeskolak proiektuak. Ekimen hau Geoparkea eta honek bere baitan dituen baliabide guztiak (geologia, natura, kultura, ondarea...) ezagutzeko programa didaktiko bat da eta asmo bikoitza du: alde batetik, Geoparkean bizi diren ikasleak Geoparkea zer den jakitea, eta, bestetik, Geoparkeak dituen baliabide didaktikoak landu eta eskolen zerbitzura jartzea. Horretarako, lehen hezkuntzako lehen mailan hasi, eta DBH bukatu bitartean, ikasleek Geoparkeari buruzko hainbat eduki jasoko dituzte. Hain zuzen, honakoak dira programaren helburuak:



Gainera, programaren metodologia berritzailea da eta ikasleen gaitasunak lantzen ditu, klase magistralak albo batera utzi eta lantalde txikietan lana egiteko. Horretarako, ikasleak lan taldeetan banatzen dira, talde bakoitzak erronka bat izango du, eta arazo-egoera bati egin beharko dio aurre. Adibidez, fosilen zein iknofosilen ikerketa eta laginketa mapa geologikoan kokatzea edota paisaiaren irakurketa egitea, erliebe-forma eta egitura geologikoak ulertaraziz.

2021-2022 ikasturtean, Deba, Mutriku eta Zumaiako eskolak hartuko dute parte programan eta 500 ikasle baino gehiagok egingo du prestatu dugun unitate didaktikoren bat. Honako hauek dira martxan ipini ditugun unitateak:

- Amoniteak, Mutrikuko fosil erraldoiak- unitate didaktikoa (LH 1)
- Geoparkeko barrualdeko paisaia: Lasturko karsta (LH6)
- Zumaiako kostaldeko flyscharen ikerketa (DBH 4)

Erabilera didaktikorako putzua egin dute Itziarren



Itziarko herrigunearen eta industrialdearen artean dago kokatuta PR lursaila. Jatorrian pribatua zen lursaila udalaren jabetzakoa izatera pasa da denboran. Auzo udala martxan jarri zenetik, eremu hau zaindu eta herritarren erabilerarako eskura jartzeko saiakerak egin dira, ingurua txukundu eta paisaia atontzeko lanak eginez, sastraka garbituz eta pendizetan zuhaitzak landatuz, esate baterako. Eremua egokitzeaz gain industrialdeko pabiloien paisaia inpaktua leuntzea izan da aktuazio horien helburua. Ildo beretik, joan den urtean aisialdirako lekua ipini zen, eserlekudun mahaiaik paratuz.

Paisaia naturalaren hobekuntza ahalegin horretatik etorri da putzua edo urmaela jartzeko ideia, Aranzadi Zientzia Elkarteak sustatutako 'Eskoletako Urmael Sarea' egitasmoa ezagutu ondoren. Eskola inguruan putzua edo urmaela duten eta eremu hori erabilera didaktikorako baliatzen duten Euskal Herriko ikastetxeen sarea da berau, helburu nagusitzat duelarik eskola horien arteko lotura sustatzea eta esperientziak partekatzeko aukera ematea. "Urmaela sortzea, ingurumenaren eta biodibertsitatearen aldeko pausu garrantzitsua da, inguruko hainbat espezieren biziraupenerako ezinbestekoak diren ekosistema ahul eta zaugarriak errekueratuz. Galtzen joan diren urmaelak biodibertsitatearen iturri dira, baina era berean, funtzio interesgarria bete dezakete dibulgazio eta hezkuntza mailan" Aranzadiren deskribapenaren arabera.

Eskoletan urmaelak sortzeko abiapuntua Alemaniatik ekarri zuen Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Sailak, eta Euskal Herrian dagoeneko hogeita eskola inguru dira sare horretan ari direnak, bakoitzak bere putzua eratu duelarik ondoren mantenu lanak egin eta eduki didaktikoak garatzeko. Itziarren, bertatik bertara landutako aukera baliatuz, Luzaro Ikastetxea eta Aranzadi Zientzia Elkartearen adostasunaren ondoren gauzatu da ekimena. Egitasmoa sustatzeaz gain baliabideak jartzeaz Itziarko Auzo Udala arduratu da. Horrela, auzolan saioa egin zuten joan den urriaren 15ean Luzaro Ikastetxeko Debako eta Itziarko ikasleek, hainbat herritarren laguntzaz eta Aranzadi Elkarteko adituen gidaritzapean. Urarentzat geruza iragazgaitza ipini, lurra egokitu eta putzuari bueltan egurrezko hesia jarri zituzten. Era berean ikasleei tailerra eskaini zitzaientzen, urmael ekosistemaren mamia azalduz, eta aurrerantzean egingo den jarraipenaren berri emanez.

ehbildu



PARTAIDETZA VS. KOOPERAZIOA

Esaera zaharraren arabera, askotan, nahiago dugu ezagutzen dugun horretan jarraitu, ezezaguna denari edo berriari ekitea baino. Aldaketak bertigo puntua ematen du, nagieria, segurtasun eremutik irtetea gutxitan izaten da gustagarri.

Baina gizarte demokratikoagoa, inklusiboagoa, egituraz horizontalagoa nahi badugu, pausuak eman besterik ez dugu. Jorratu beharreko bidea izaki, aro berri bati hasiera emateko modua izan da Partaidetza Batzordeak bultzatutako Dagigun partaidetza gunearen sorrera eta azken hilabeteotan egin den lanketa.

Partaidetza bai, baina kooperazioa oinarri duen partaidetza. Herritarrak, eragileak, udal langileak, udal ordezkariak... maila berean jartzen dituen partaidetza. Askoz ere ederragoa da udalerriko espazioek, ekimenez, proiektuek eta herritarrek bat egiten duten dinamikak eratzea. Beste indar bat sortzen da horrela, beste ahalduz bat, beste konfiantza bat, beste ziletasun bat.

Zumardiari buruzko lanketari segida emateaz gain, egiteko modu honekin jarraituko dugu, ohituren aurrean azaldu ohi den erresistentziari aurre eginez, kooperaziorako kultura erroto nahi dugulako.

El cambio da un punto de vértigo, de pereza, salir de la zona de confort rara vez resulta apetecible. Pero si queremos una sociedad más democrática, más inclusiva, estructuralmente más horizontal, no tenemos más que dar pasos. La creación del espacio participativo Dagigun, impulsado por la Comisión de Participación, y el trabajo que se ha llevado a cabo en los últimos meses, han supuesto el inicio de una nueva etapa.

Participación sí, pero una participación basada en la cooperación. Una participación que coloca al mismo nivel a la ciudadanía, a los agentes, a las y los trabajadores municipales y a representantes municipales. Es mucho más bonito configurar dinámicas en las que confluyen espacios, iniciativas, proyectos y ciudadanía. De esta manera, surge otra fuerza, otro empoderamiento, otra confianza, otra legitimidad.

Además de dar continuidad al trabajo sobre la Alameda, continuaremos con esta forma de hacer, haciendo frente a la resistencia que se suele manifestar ante las costumbres, porque queremos arraigar la cultura de la cooperación.

AZKEN TXANPAN

Heldu gara hilerriaren azken fasera. Proiektua duela urte batzuk hasi zen martxan, denbora gehiegi onartu zenetik. Oztopoz, eragozpenez, eskariz... betetako bidea.

Jakina da administrazio publikoarekin lotutako izapideak motelegiak direla, baina hau ez da kasua! Bide luze honetan, hilerri berriaren eraikuntza gelditzearen helburu bakarrarekin, proiektu honek eskari eta salaketa ezberdinei aurre egin behar izan dio. Eta jakin badakigu, oraindik, proiektu honetako gairik delikatuenetako bat geratzen dela, gorpuak lekuz aldatzea, pertsonen sentsibilitate desberdina kontuan hartuta egingo dena.

Azken hilabete hauetan, herritarren beharrak eta kezkek ezagutzeko helburuarekin, parte-hartze batzordetik sustatutako partaidetzarako gunean aktiboki lanean aritu gara. Proiektu honekin etorkizuneko jardueretarako oinarriak ezartzea lortu nahi dira, eta bide batez gure herriko zerbitzu eta baliabide guztiak hobetzea lortuko dugu.

Hala ere, DATik uste dugu gobernu-taldea gehiago zentratu dela kultura, euskara, berdintasuna eta gizarte-zerbitzuetan, eta ildo horiek garrantzitsuak badira ere, herriaren garapenean hain garrantzitsuak eta beharrezkoak diren arlo batzuk alde batera utzi direla, hala nola hirigintza, zehazki etxebizitzari dagokionez.

EN LA RECTA FINAL

Por fin nos encontramos en la recta final del proyecto del cementerio. Un proyecto que comenzó su andadura hace ya unos cuantos años, demasiado tiempo transcurrido desde que se aprobó. Un camino lleno de trabas, impedimentos, demandas...

Es de todos sabido que los trámites relacionados con la administración pública son demasiado lentos, pero este no es el caso. Este proyecto ha tenido que enfrentarse a las distintas demandas y denuncias, cuyo único objetivo ha sido el de paralizar la construcción del nuevo cementerio.

Somos conscientes que todavía queda uno de los asuntos más delicados de este proyecto, el traslado de los cuerpos, que se realizará teniendo en cuenta la diferente sensibilidad de las personas.

A lo largo de estos últimos meses hemos estado trabajando activamente en un proyecto de participación ciudadana, con el objeto de conocer las necesidades e inquietudes de la población. Con este proyecto se conseguirán establecer las bases para futuras actuaciones que darán lugar a una mejora en todos los servicios y recursos de nuestro pueblo.

Pero desde DA tenemos la sensación de que el equipo de gobierno se ha centrado más en las líneas de cultura, euskera, igualdad y servicios sociales, que también consideramos importantes, pero que se están dejando de lado otras áreas muy necesarias e imprescindibles en el futuro desarrollo de Deba como es el área de urbanismo, en concreto en lo que respecta a la vivienda.



PANDEMIA GARAIAN

Bi urte zail izan dira guztiontzat, pandemiaren itzal etengabearekin.

Baina, benetan justifika al dezakegu Udalean baldintzatzaile horrek ekarri duen kudeaketa txarra?

Justifikagarria al da arrazoi horregatik konprometitutako proiektuak aurrera eramateko ezintasuna?

Zentzuzkoa al da partidak eta elkarteentzako laguntzak murriztea, gastuak murriztea eta diruzaintzan 2 milioi eurotik gorako soberakina pilatzea, horrek debarrontzat hobekuntzarik ekarriko ez badu?

Gure ustez, kudeatzeko beste modu bat posible da, eta Debako EAJ-PNV udal taldeak beti erakutsi du kudeaketa hori hobetzen laguntzeko prest gaudela.

Gobernu arduratsu, konprometitu eta eraginkorra merezi dugu, kudeatzeko gaitasuna duena.

EN TIEMPOS DE PANDEMIA

Han sido dos años complicados para todos, con la sombra continua de la pandemia.

¿Pero realmente podemos justificar la mala gestión que se ha realizado en el Ayuntamiento por este condicionante?

¿Es justificable la imposibilidad de llevar adelante proyectos comprometidos por esta razón?

¿Es razonable recortar partidas, ayudas a asociaciones, reducir gastos y al mismo tiempo acumular un excedente en tesorería de más de 2 millones de euros, que no revertirá en mejoras para las y los debarras?

Creemos que otra manera de gestionar es posible y desde el grupo municipal EAJ-PNV de Deba siempre hemos mostrado disposición a colaborar en la mejora de esa gestión.

Nos merecemos un gobierno responsable, comprometido, eficaz y con capacidad de gestión.

UDAL GOBERNUAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

GILEN GARCIA BOYRA

ALKATEA

HIRIGINTZA eta ETXEBIZITZA
HERRITARREN PARTAIDETZA

alkatea@deba.eus

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

ALKATEORDEA

OGASUNA, ONDAREA eta KONTUAK
BERDINTASUNA eta POLITIKA FEMINISTA

itziaririzar@deba.eus

ARITZ LARRAÑAGA UNANUE

ALKATEORDEA

BARNE ERREGIMENA
ONGIZATE POLITIKA
EUSKARA ETA KULTURA (JAIK)

aritzlarranaga@deba.eus

ANTXON ETXEBERRIA LARREA

HEZKUNTZA, KIROLA eta GAZTERIA

antxonetxeberria@deba.eus

NEREA ARRIZABALAGA BADIOLA

EKONOMIAREN SUSTAPENA eta LANDA
EREMUAREN GARAPENA (TURISMOA,
MERKATARITZA, OSTALARITZA, GEOPARKEA)

nereearrizabalaga@deba.eus

ANTXOKA ELORZA ALTUNA

OBRAK, ZERBITZUAK
eta INGURUMENA

antxokaelorza@deba.eus

Portu kalea, 1

+34 943 192 840

info@deba.eus



DEBAKO UDALA

Mirari Uranga
Beristain
Zestoa, 1884



Haurren hizkuntza ohituretan gurasook dugun eragina oso garrantzitsua da

Hamabi urte dira Mirari Uranga Beristain Deban bizi dela. 6 eta 9 urteko bi haurren ama da. Apakin guraso taldeko kide da. Haurren artean erdararako joerak kezkatuta, hizkuntza ohituretan eragiteko helburuarekin sortu zuten taldea 2020. urtean.

Apakin Guraso Taldea 2020. urte hasieran sortu zenuten euskararen erabilera datuek kezkatuta. Zer irakurketa egiten duzue?

Gure haurren erdararako joera ukaezina da. Horretan gurasook dugun ardura eta eragina oso garrantzitsua dela uste dugu. Gure saiakera eta ekimenak ere ildo horretatik joan dira, gurasoak eredu garela ohar gaitetzen eta bide horretan ditugun zailtasunak zein diren identifikatuz.

Apakinak itsasoak ekartzen dituen egur zatiak dira. Zergatik izena?

Taldearen izenak herriarekin eta euskararekin lotura eduki zezan nahi genuen. Debako herriak itsasoarekin lotura estua dauka eta apakinak sua egiteko erabili daitezke; euskararen sua piztu nahi genuke guk.

Urtebete pasa da taldea sortu zenutela, tartean osasun pandemia, nola eragin dizue horrek?

Pandemia dela eta, talde guztien moduan, biltzeko eta aurrera egiteko zailtasun gehiago izan ditugu. Eta gure erronka, batez ere, zer nolako ekimenak antolatuta hausnartzea izan da. Jendea bildu ezin izan den garaietan, aurrez-aurreko egitasmoak alde batera utzi eta bestelakoetara jo behar izan dugu.

Oraintxe bideratu duzue Euskaltzaleen Topaguneak sustatutako 'Haurren aurrean, helduok heldu' kanpaina. Nola joan da?

Kanpaina xumea izan da. Identifikagarri batzuk banatu ziren herrian, baina gero kalean askorik ez dira ikusi. Identifikagarriak janztean, nolabait, egitasmoaren kontzientzia hartzen dela uste dugu. Kartelak eta lonak begi-bistan izan ditugu uneoro, baina ariketa egiten saiatu ordez errazenera jo ote dugun susmoa daukagu.

Zergatik da garrantzitsua Apakinen parte hartzea?

Hilean behin elkartzeko gara eta gurasoei bideratutako ekimen txikiak egiten ditugu.

Gure seme-alaben hizkuntza-ohiturez kezkatuta bazaude eta euskararen alde zure alea jarri nahi baduzu, etorri Apakin taldera! Euskaraz eta eskuak zabal hartuko zaitugu!

“Euskararen sua piztu
nahi genuke”